

2024ko Hauteskunde Autonomikoen ondoko inkesta (2024ko apirila) Prensa oharra

SARRERA

Azterlan honen gai nagusia EAEko herritarrek apirilaren 21ean izandako Hauteskunde Autonomikoetan izandako hauteskunde-portaera izan da.

Landa-lana 2024ko apirilaren 22an eta 23an egin zen.

HAUTESKUNDE KANPAINAREKIKO INTERESA ETA JARRAIPENA

2020ko Hauteskunde Autonomikoetan baino interes eta jarraipen handixeagoa

Biztanleriaren % 20 gizartean gertatzen diren gauzen parte sentitzen dira, % 44 pixka bat, % 26 gutxi eta % 10 batere ez. Inplikaturaren egotearen sentimendua, 2020ean baino apur bat txikiagoa bada ere, areagotu egin da 2022tik.

Herritarren % 62k adierazi dute interes handia edo nahikoa izan dutela apirilaren 21eko Hauteskunde Autonomikoetan; interesa 2020ko (% 53) eta 2016ko (% 56) Hauteskunde Autonomikoetan izandakoa baino handiagoa da.

Inkestatuen % 42k **egunero** jarraitu du hauteskunde-kanpainari buruzko informazioa telebistaren bidez; % 29k egunkarien bidez eta % 26k irratia bidez. Kanpainaren hedabideen bidezko jarraipen hori 2020ko Hauteskunde Autonomikoetan izandakoaren antzekoa da. Gainera, % 52k Internet eta sare sozialen bidez jarraitu dute kanpainari buruzko informazioa, noizean behin behintzat; 2020ean % 45ek jarraitu zuten informazioa internet bidez, eta 2016an %28k. 30 urtetik beherako gazteen artean potzentaje hori % 79raino igotzen da.

Inkestatutako pertsonen % 16k hauteskunde autonomiko horien inguruko mezuak partekatu dituzte whatsapp, sms, txio edo antzekoen bidez, 2020an baino zertxobait gehiago (% 11).

Hauteskunde horiek hizketagai izan dira, askotan edo noizean behin, familiarekin (% 59), lagunekin (% 50) eta lankideekin edo ikaskideekin (% 32).

Herritarren % 50ek hauteskunde aurreko inkestaren baten emaitzak ezagutu zituzten. Gehienek (% 53) uste dute inkesta horiek eragin txikia edo batere ez zutela izan hautesleeren boto-erabakian, aldiz, % 31 dira inkesta horiek boto asmoan eragin handia edo nahikoa izan dutela uste dutenak.

HAUTESKUNDE PORTAERA

Gehienek botoa erabakita zuten hauteskunde kanpainaren aurretik, baina asko dira azken egunetan erabakitzen dutenak

Boto-emaileen gehiengoak erabakita zeukan hauteskunde-kanpaina baino lehen bozkatzera joango zela (% 80). % 11k kanpainan zehar erabaki zuten, % 2k hausnarketa-egunean eta % 7k hauteskunde-egunean bertan. Hau da, boto-emaileen % 20k erabaki zuten Hauteskundearen aurreko bi asteetan botoa ematera joango zirela.

Botoa ez emateko erabakia beranduago hartu zen: abstenitu zirenen % 53k kanpaina hasi aurretik erabaki zuten, % 17k kanpainan zehar, % 3k hausnarketa-egunean eta % 22k hauteskunde-egunean bertan. Hau da, abstenitu zirenen % 42k erabaki zuten botorik ez ematea Hauteskundearen aurreko bi asteetan.

Botoa ematera joan ziren gehienek konbentzimenduz eman zuten botoa (% 60), % 15k zalantzekin eman zuten, eta % 23k aukera txarretan onena zelako. Emandako botoaren konbentzimendua zertxobait murriztu da 2020. urtearekin alderatuta; izan ere, orduan % 64k adierazi zuten konbentzimenduz bozkatu zutela.

Botoa ematera joan ziren ia pertsona guztiak (% 96) ados daude emandako botoarekin, hauteskunde-deialdi guztietan ohikoa den bezala.

Abstenitu zirenen artean, % 15ek diote emaitzak ikusita, nahiago luketela botoa ematera joan izan balira. Ehuneko hori % 14tik % 19ra bitartekoa izan da aurreko Hauteskunde Autonomikoetan. Politikarekiko eta politikariekiko desengainua da botoa ez emateko arrazoi nagusia (% 31).

EMAITZEN BALORAZIOA

Gehienek uste dute hauteskundeek emaitzak positiboak direla. Egungo formula errepikatu eta EAJren eta PSE-EEren artekoa gobernu osaketa da gogokoena

% 70ek oso edo nahiko positibotzat jo dituzte Hauteskundeek emaitzak; % 13k, berriz, oso edo nahiko negatibotzat jo dituzte.

Eusko Jaurlaritzaren berriari begira, EAJren eta PSE-EEren arteko egungo gobernu ituna berregitea da gogokoena (% 35), ondoren EAJren eta EH Bilduren artekoa (% 17), eta hirugarren aukera da EH Bilduren eta PSE-EEren arteko gobernuak (% 10).

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina Hauteskundeetan boto-
eskubidea zuten 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 900 lagunek osatua da. Elkarriketak
telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm\% 3,3$ koa da EAE osorako, % 95,5eko
konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2024ko apirilaren 22a eta 23a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

<http://www.euskadi.eus/ikerketa-soziologikoak>

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 26a